

HIRZPIDAK

2013ko abendua

6

Gazteak eta parte-hartzea

*Gazteen parte-hartzeari
buruzko ikerketa*



Argitaratzen du

**Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua**



**Consejo de
la Juventud
de Euskadi**

Ikertzailea

Fabio González López

Diru-laguntzaileak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**

Kultura
Saila
Departamento
de Cultura

Aurkibidea

1. Sarrera eta helburuak	02
2. Landa-koadernoak: ikerketaren justifikazio metodologiko-praktikoa	04
3. Emaitzak: diagnostikoa	12
4. Ondorioak eta gomendioak	31

1. Sarrera eta helburuak

Dokumentu honek Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2013ko bigarren sei hilekoan burututako parte-hartzeari buruzko Ikerketaren (Ikerketa 2013, I2013) ibilbidea eta ondorioak jasotzen ditu.

I2013-ren helburu transbertsala gazteek parte hartzeko zein parterik ez hartzeko dituzten arrazoiak ulertzea da. Gainera, orientazio praktikoak bilatzen ditu, parte-hartzea bultzatzearen zentzuan, gazte erakundeei, EGK-ri berari eta gazteria arloan diharduten administrazio publikoei zuzenduak.

Hurrengo orrialdeek hori guztia jorratzen dute, baita beste ohar gehigarriren bat jaso ere. Hau lan apal baina arduratsu baten fruitu da, posible izan dena soilik EGK bezalako euskal gazteriarentzako espazio propio bat hor dagoelako, eta hamarnaka erakunde, boluntario, militante, teknikari, laguntzaile eta bazkideren elkarlanari esker, euren ezagutza eta denbora era altruistan eman diotelako I2013 honi.

Guztia galdegitea

Gazteen parte-hartzea (edo parte-hartze eza) bezalako errealitate bati heltzeak hausnarketa multzo bat burutu behar izatea dakar, ez baita erronka eta eztabaidetatik libre dagoen zeregina. Hasteko, zer da parte-hartzea? Edo zer esan nahi du parterik ez hartzeak? Zaila da zerbait ulertu edo neurtzeko saiakera egitea, beronen definizioaren (dena eta ez dena) gainean adostasunik ez dagoenean. Galdera guzti hauei gutxienez beste bat gehitzen zaie: zer da gazteria? Edo hobeto: noiz da norbait gaztea?, eta hedaduraz, noiz ez da norbait gaztea? I2013-k gazteen parte-hartzeari hurbiltzeko saiakera burutzen du, eta halere, parte-hartzea zein gazteria ez dira auzi agerikoak edo zehatzak.

Halere, abstrakzio-gaitasun inbidia garria duen pertzepzio sozialak erakusten digu aztertu daitekeen zerbaiten aurrean gaudela, existitzen den zerbaiten aurrean azken finean.



“Oso auzotar parte-hartzailea da”

“Lokal hori ez zen egokia guretzako, jende gazteagoarentzat zen”



Hain ulerterrazak diren esaldi hauek (irudizkoak baina seguruenik noizbait adierazi direnak) erakusten digute, kanpotik ikusita gutxienez, baieztatu dezakegula parte-hartzea existitzen dela, eta baita gazteria ere.

Helburuak

Ontzat joz gero aurreko arrazoitzea egiazkoa dela, eta azken hamarkadetan metatutako esperientzia pertsonal eta kolektiboen ibilbidea kontuan hartuta, EGK-ren barneko corpus antzeko baten gisa, I2013-k helburu global gisa du **EAE-n gazteen parte-hartzearen egungo egoeraren argazki sinbolikoa egitea, diagnostiko bat, ondorioak eta gomendioak lortzeko intentzioarekin**. Kontua ez da ikerketa zalantzarik gabe onartzea, baina aurre egitea zalantzak azterlanaren parte direla jakinez, eta zalantzak egoteak erantzunak ere egotea dakarrela. Ezagutzeko galdetzea.

Helburu nagusi hontaz gain, I2013-k **gazteen parte-hartzerik ezaren errealitateari hurbiltzeko** asmoa du, **Gazteen eta gaztetasunaren identitatea(k) bereizteko** ekarpena era oinarrituan egiteko eginkizuna hartzen du bere gain, hauen definizioak eztabaidatuak eta interpretazio desberdinen objektu diren heinean. Eta, azkenik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoen eremuan, helburu globalaren deskribapen mugatu baina zorrotza lortzeko saiakuntza egiten du.

Behin I2013 aurrera eramateko erabakia hartuta eta bere helburuak laburbilduta, hurrengo puntuan azaltzen diren zertzelada metodologikoak ezagutzea geratzen da. Hori egin aurretik, atariko azken oharra: lehenengo ikerlan honek osagai esperimentalak du, lehenengo aldiz planteatzen den neurrian, formatu honetan behintzat. Bere eraginkortasuna eta erabilgarritasuna optimizatuko dira ikerlanari segida ematen zaion heinean. Jarraitutasuna ez soilik diagnostikatzen, ondorioztatzen eta gomendatzen den hartan, baizik eta ikerlanari berari dagokionean –beharrezkoak diren aldaketekin-, zaharkituta geratuko ez dela bermatzeko eta, aldi berean, ikertutako errealitatearen (gazteen parte-hartzea) eboluzioaren balio erantsia lortzeko.

Azken honek analisi konparatua ahalbidetuko luke, aldi berean ibilbidearen baterako ikuspegia posible egingo lukeena, ezagutza handiagoa eta batez ere hobea suposatzen duena.



2. Landa-koadernoak: ikerlanaren justifikazio metodologiko-praktikoa

Ikerlanaren objektua dela eta, metodologia kualitatiboaren ikuspegitik heltzea erabaki zen, hau erabiltzen baita gizarte edo arlo sozial batean gai zehatz baten harremanak eta esanahiak ezartzea beharrezkoa denean. Hau da, ez da bilatzen estatistikoki adierazgarria den lagina lortzea, baizik eta gazteen parte-hartzearen elementu diskurtsibo eta esanahi nagusiak ezagutzea, adierazgarritasun substantiboaren irizpidearen bitartez. Hori dena ikerketarentzat interes nagusikoak diren egoera sozial guztiei erantzuteko helburuarekin, biztanleriaren ezaugarriak bere osotasunean erreproduzitzea baino¹.

Halaber, tresna guzti hauen barnean, 2013-aren aurreko artean ondorengoak hartu ziren kontutan:

Elkarriketa kualitatiboak

Ezaugarri nagusi moduan dutenak eragindako hizketaldiak direla, ikerketa planaren arabera subjektuei zuzendutakoak, kontuan hartzeko den kopuruan, elkarriketatzaileak gidatuak, eta estandarizazio nahikoa duen eskema malgu batean oinarrituak.

Landa-lanaren lehenengo fasean izan ziren burutuak. Elkarriketok, modu pertsonalekoak edo erdi-pertsonalekoak (kasu zehatzetan bi elkarriketaturekin egin ziren²), izaera egituratua izan zuten, galderak (estimuluak) formulazio berarekin eta ordena berean egin zirelarik.

Azpitarratu behar da elkarriketen artean erritmoetan aldaketak egon baziren ere (teknika honetan ohikoa dena), benetako egituraren jarraipena oso egokia izan zela, hitz egindakoaren interpretazioari argitasuna ematen diona.

Eztabaida taldeak

Gizarte bateko edo esparru sozial bateko marko diskurtsiboak taldeko egoeran maila mikrosozialean errepikatzen direla ontzat hartuz, teknika honek ahalbidetzen du “*diskurtsuak beren osagaietatik askatzea, gizarteko arauak eta subjektuen elementu inkontzienteak adierazten dituzten egitura ezutuak bilatzeko*”³. Eztabaida taldea definitzen da kontu handiz prestatutako hizketaldi gisa, interesekoa den zehaztutako eremu batean informazioa lortzeko, permisiboa -ez zuzendua- den giro batean. Mugatutako pertsona kopuru batekin burutzen da, moderatzailek batek gidatuak. Eztabaida lasaia da, eroso eta askotan parte-hartzaileentzat gogobetegarria, euren ideiak eta komentarioak guztien artean adierazten baitituzte. Taldeko kideek elkarri eragiten diote, eztabaidan agertzen diren ideia eta komentarioei erantzuten baitiete.⁴

1 Corbetta P. (2003). *Metodología y técnicas de investigación social*.

2 Kasu bakar batean hiru izan ziren elkarriketatutak.

3 Tarres, M.L. (2001) *Observar, Escuchar y Comprender: sobre la Tradición Cualitativa en la Investigación Social*.

4 Krueger, R. (1998) *Focus groups: a practical guide for applied research*.

Tresna hau bigarren fasean izan zen erabilia, aurrekoa baino era malguagoan jarri baitzen praktikan, aurrekoak elkarrizketa kualitatiboaren ezarpen klasikoari erantzuten zion eta. Horrela, parte-hartzaile kopurua desberdina izan zen saio bakoitzean, eta sarrerako dinamikak erabili ziren eztabaidarako giro hoberena mesedetzeko asmoarekin.

Modu berean, ikerketaren aukeren artean ez zegoenez transkripzio profesionalak burutzekoa, ez zen onartu dinamiken grabazioa, ondorengo analisirako tresna nagusia landa-oharrak izan zirelarik. Inguruabar horri gehitu behar zaio grabaziorako gailu baten presentziak suposa zezakeen mesfidantza, profil desberdinen jatorri (sozial, kultural, erlazional, politiko, ideologiko) heterogeneoa zela bide.

a. Aurretiazko hipotesiak

Hiztegiaren arabera, hipotesia da *“posiblea edo ezinezkoa den zerbaiten suposizioa, hortik ondorio bat ateratzeko”*. Lanaren eremura ekarrita “hipotesia behin-behinean ezartzen da ikerketa baten oinarri gisa, beranduago beronen baliozkotasuna konfirmatu edo ezeztatu dezakeelarik”. Hipotesiak mahaigaineratzea, beraz, ezinbestekoa da I2013 bezalako ikerlan sozial baten fase enpirikoarentzat.

Horrela, bada, parte-hartze arloak bi hipotesi nagusi egin zituen, eratorritako azpi-hipotesi sorta batekin, Kontseiluaren lan-talde teknikoarekin egiaztatuak izan ondoren:

1. **Gazteriaren garrantzia** Euskadin **elementu eztabaidatua da**, adostasunik ez duena, batzuetan zatikatua, etengabeko eboluzioan dagoena eta beraz modu eraginkorrean estimulatzeko eta interpelatzeko zaila dena. Horrekin batera, gazte indibidualaren eta kolektiboaren identifikazioen arteko loturarako bideak ez daude beti zabalik eta ez dira beti norabide bikoak
 - 1.1 Halere, badaude norberaren pertzepzioarekin lotutako oinarritzko elementuak, positiboki zein negatiboki adieraziak. Elementu hauek ikertuak, analizatuak eta ezagutuak izan daitezke.
2. Handicap identitarioaz gain, **parte-hartzearen arrazoi eta zergatien, erabilgarritasun eta zentzuaren narriadura**, faktore anitzengatik (ibilbide historikoa, krisi sozioekonomikoa, belaunaldi globala, politikaren eta publikoa denaren debaluazioa, beste batzuk) gizarte berdintsuetan dagoen geldotasun kolektiboaz haratago.
 - 2.1 Hondatze zehatz hau prozesu bikoitz baten testuinguruan kokatu behar da, **ekintza kolektiborako formula berriak agertzen** eta desagertzen direlarik naturaltasunez, era indartsu, hauskor eta lausoan.
 - 2.2 Parte hartzeko eta parterik ez hartzeko arrazoi edo oinarritzko arrazoi (ideologemak) identifikazioa, inguratzen duen marko diskurtsiboaren hautematearekin batera, tresna erabilgarria da gazteen parte-hartzearen birformulaziorako, errealitate sozialarekin lotzeko eta eremu eta pertsona berriak gehitzeko.

Hipotesi hauek sarreran adierazitako galderei erantzuten diete, baina aurretiazko eran, modu iragankorrean. I2013-ren garapenak premisa horiek “faltsuzen” saiatzeko frogak bilatzen ditu, alegia konfirmatzeko edo baztertzeko proba egitea, zati baten edota osorik aldatuz (ikusi Diagnostikoa).

b. Laginaren diseinua

Sarrera gisa, esan behar da I2013 ezaugarri bereziak dituen ikerketa bat dela. Berezitasun horiei erantzuten die EGK-ren kide diren erakundeek zati batean aurretiaz zehaztutako laginen diseinuak, lehenengo azpi-talde batetan, aztertu beharreko errealitateak mugatzen edo argitzen dituenak.

Halere, EGK-ren kide ez diren elkartegintzako errealitateak jasotzen dituen bigarren azpi-talde bat egoteak berme nahiko ematen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen parte-hartzearen errealitatea egiazkotasunez islatu dela baieztatzeko. Horri gehitu behar zaio EGK-ren frogatutako zilegitasuna, baina ez erakunde guztiz ordezkagarria izateagatik, baizik eta eskuarki aitortua izan delako Euskadiko topaleku baimenduena eta anitzena bezala.

Modu honetan, laginaren diseinua ondorengo eran taxutu da:

1. Hasierako ebakiduraren aldagaia: errealitateak laginaren barnean sartu eta baztertzan dituen da. Kasu honetan, **parte hartzen duten gazteei** dagokiena da, hauen barnean daudelarik:
 - a. EGK errealitate formalak (ia osotasunera hedatutako lagina).
 - b. Errealitate berriak/ez formalak/EGK kanpoko formalak (errealitateen unibertsoaren barneko lagin esangarria).
2. Egituratze-aldagaiak: laginaren barnean bilatzen diren profilak zehazterakoan kontuan izan beharrekoak. **Lurraldea, generoa, hizkuntza, parte-hartze eremua, eta adin-taldea** dira, nagusiki⁵.
3. Metodologia: esan den moduan, jatorrizko erabakia delako, ezaugarri hauen aurretikoa, **metodologia kualitatiboa erabili da**, ondorengo hauen bitartez:
 - a. **Elkarrizketa pertsonalak edo erdi-pertsonalak** I2013 osatzen duten erakunde guztientzat. **Guztiak erakundeen edota euren kideen lantokian burutu beharrekoak.**
 - › Ausazko irizpide bati jarraituz, erakundeei iradoki zitzaizen elkarrizketatutako pertsona erakundeko kide, bazkide, militante, kolaboratzaile edo boluntario **erreferentziala** izatea, gazte erakunde bakoitzeko edo erakundearen gazte eremuko ohiko profilaren erakusgarri.
 - › Gidoi egituratua ezarri zen, bi estimulu nagusirekin, gainontzeko osagarriekin batera:

1. Zure esperientzia eta ezagutzen dituzun bestelako esperientziak kontuan hartuta, zeintzuk dira pertsona gazte batek parte hartzeko dituen arrazoi nagusiak?

2. Eta parterik ez hartzeko arrazoi nagusiak?

⁵ Jatorri sozioekonomikoa ez da gogoan hartu.

b. Bigarrenik, **eztabaida taldeak, lurralde historiko bakoitzean saio bat burutuz.**

- › Elkarriketetan egin bezala, eztabaida taldeak osatzeko profilen deialdiak ausazko izaera izan zuen, betiere aurreko fasean parte hartu zuten erakundeen baitan. Halere, saio bakoitzean taldeen aniztasuna gordetzeko ahaleginak egin ziren, interes eremu komuna zuten erakundeen gehiengo bat ekiditzea zainduz.
- › Deialdiak bi zati zituen, lehenengoa atarikoa (dinamika) eta bigarrena eztabaidarakoa, ondorengo estimulu nagusiak planteatu zirelarik.

1. Zeintzuk dira parte hartzera eramaten gaituzten arrazoiak?

2. Zeintzuk dira parterik ez hartzeko arrazoiak?

Tresnen erabilera bikoitz honen arrazoiak banakako kontakizuna kontakizun kolektiboarekin alderatzeko nahia da. Elkarriketen munta eztabaida taldeena baino handiagoa izanik, azken hauek **kontrol-elementu** gisa jokatzeko dute lagin multzoarekiko.

- c. **Ikerketa taldea:** EGK-ko parte-hartze arloak gidatua, ikerlari batek eta parte-hartze teknikari batek osatua. EGK-ko talde teknikoarekin, Batzorde Iraunkorarekin eta azken honen eta parte-hartze arloaren arteko bitartekariekin lankidetzan.
- › Eskura egon diren bitartekoak 1.000 euroko hornidura espezifikoa, EGK-ren baliabide propioekin batera.

c. Landa fasea: I2013-ren garapen metodologikoa

Hausnarketa, hipotesien definizioa eta ikerketaren laginen diseinua lantzeko faseak 2013ko uztailaren 2tik irailaren 1era iraun zuen. Behin hauek burututa eta ezagututa, landa faseari hasiera eman zitzaion.

Ezaguna den moduan, ikerketa kualitatibo guztietan landa fase honen aurretik dagoen profilen aukeraketa finalaren etapa dagoela, ikerketa hau ukitzen duena. Erakundeekin eta profil posibleekin harremanetan jartzerakoan erabilitako formula ondorengoa izan zen “*EGK gazteen parte-hartzeari buruzko ikerketa bat burutzen ari da, eta zuen erakundeko kideren batekin [boluntario, bazkide edo militante] harremanetan jartzea nahiko genuke, bere esperientzia ezagutzeko*”.

Jarduera honen xehetasunak sakonago zerrendatu ez badira ere, bidezkoa da hemen nabarmentzea dozenaka erakunde eta parte-hartzaileekin harremanetan jartzeko egindako ahalegina, telefono deien, bide elektronikoen eta kontaktu pertsonalen bidez.


Era honetan, ikerketaren garapenak **69 elkarriketa egitea suposatzen zuen, 75 erakunde eta 99 parte-hartzailearen guztizko partzialarekin, eta aurreikusitako hiru eztabaida taldeek (dinamikak) 35 parte-hartzaile bildu zituzten. 134 parte-hartzaile izan ziren orotara (hauen artean 116 esklusiboak⁶)**. Datu hauek zehazten dira ondoren, ibilbide metodologikoari baino,

6 Elkarriketen eta eztabaida taldeen artean errepikatu ez zirenak.

analisiari dagozkion elementuak biltzen dituen, baina era berean agertzen direnak, elementuok bere osotasunean behatzeak duen interesarengatik:

1. Elkarrizketak

Irailaren 2aren eta azaroaren 22aren artean burutuak. Denak era pertsonalean egin ziren, erakunde bakoitzeko kide batekin, jada azaldutako kasuetan izan ezik. .



Elkarrizketen batezbesteko iraupena 35-45 minututakoa izan zen, jorratu beharreko gaiaren ulermena egiaztatu zelarik. Aurretik azaldutako gidoi egituratua jarraitu zen. Lekuari dagokionez, **51 elkarrizketa (%74)** erakunde bakoitzaren **jarduera eremuan⁷ burutu ziren**, 18 elkarrizketa (%26) EGK-ko egoitzan edota bestelako erreferentziatzko tokietan egin zirelarik.

a. EGK errealitateak

Lagina: EGK-ko erakunde ia guztiak. Erakundeok ondorengo jarduera esparruen arabera multzokatu dira⁸:

⁷ Erakundeen lokalak edo, hauek egon ezean, jarduera nagusia burutzen den herriko erreferentziatzko lekuren bat.

⁸ Sailkapena erreferentziatzko irizpide baten arabera egin da soilik. Hainbat jarduera eremutan kokatu daitezkeen erakundeak daude eta talde bakar batean izan dira sailkatuak izan diren arren, burutzen dituzten bestelako jarduerak kontuan hartu dira. Adib. Gazteen Gurutze Gorria.

**BOLUNTARIOTZA
ETA ASTIALDIA:**
27
ERAKUNDE

**SOZIOPOLITIKOAK
ETA SINDIKALAK:**
18
ERAKUNDE

**GIZARTE EKINTZA
ETA KULTURA:**
11
ERAKUNDE



BESTEAK:
5
ERAKUNDE

Eta guztira:

57
ELKARRIZKETA
(61 ERAGILE)



76
PARTE-HARTZAILE



b. EGK-z kanpoko errealitateak

Lagina: EAE-ko parte-hartze ehunean dauden errealitateen adierazgarria. Behaketa irizpideak kontuan izanda burutzen da, EGK-ko lantalde teknikoarekin egiaztatu ondoren. EGK-ko erakundearen barnean **boluntariotzan diharduten taldeen** ordezkaritza zabala kontuan hartzen da, lagin osoaren desoreka ekiditzeko helburuarekin. Erakunde parte hartzaileak ondorengo eran izan ziren sailkatuak⁹:

ASTIALDIKOAK: 3

SOZIOPOLITIKOAK ETA SINDIKALAK: 2

GIZARTE-EKINTZA ETA LAGUNTZA: 2

GKE SOLIDARIOAK, NAZIOARTEKOAK: 3

KULTURALAK: 1

KIROLETAKOAK: 1

GAZTE ASANBLADAK / GAZTETXEAK: 1


LONJAK / LOKALAK: 1

⁹ Kategoriak desberdinak dira EGK-ko erakundeetan eta EGK-z kanpoko erakundeetan, ez baita elementu zentrala baizik eta ikerlanerako elementu tekniko-praktikoa. Ikerlanak dituen baliabideen barnean posible den helburua errealitate anitzen bilaketa da, ez berauen kategorizazio zehatza.

Hori guztia ondorengoztat:



12

ELKARRIZKETA
(14 ERAGILE)



23

PARTE-HARTZAILE



2. Eztabaida taldeak (dinamikak)

2013ko azaroaren 14 eta 21 artean burutu ziren, lurralde historiko bakoitzeko hiriburuan saio bat burutuz. Deialdia egin zitzaien, esplizituki, bertaratzeko asmoa zuten erakundeetako pertsona gazteei, posible zen neurrian parte-hartzaile kopuruan oreka bilatuz. Horrela geratu dira osatuta:



1. Taldea: Vitoria-Gasteiz

Parte-hartzaile kopurua: 8
(4 emakumezko eta 4 gizonezko)

Jarduera eremuak: boluntariotza-astialdia, elkartasuna, soziopolitikoak, besteak.



2. Taldea: Donostia

Parte-hartzaile kopurua: 10
(4 emakumezko eta 6 gizonezko)

Jarduera eremuak: boluntariotza-astialdia, soziopolitikoak eta sindikala, gizarte-ekintza, besteak.



3. Taldea: Bilbo



Parte-hartzaile kopurua: 17
(10 emakumezko eta 7 gizonezko)

Jarduera eremuak: boluntariotza-astialdia, soziopolitikoak eta sindikala, gizarte-ekintza, besteak.

Hori guztia ondorengoztat:



35

PARTE-HARTZAILE



17

PARTE-HARTZAILE BERRI




3

DINAMIKA
ELEBIDUN

Eztabaida taldeen gutxi gorabeherako iraupena 120 minutukoa izan zen, atariko dinamika bat eta jada azaldutako egitura erabiliz. Eztabaidaren giroak intentsitatea galdu zuen gradualki, adostasun-oinarriak lortuz bateratze-lanaren bitartez eta, kasu batzutan, proposamen aurreratuagoak mahaigaineratuz.

3. I2013-ren guztikoa

Elkarrizketak eta eztabaida taldeak batzean ondorengo balioak lortzen dira:



Egiaztatu ahal izan den moduan, landa-lanaren tamaina kontuan hartzeko modukoa izan da. Zoriontzekoa da, orientazio kualitatiboa duen I2013 moduko ikerlanak, giza-baliabide eta bitarteko ekonomiko mugatuak izan arren, ehun parte-hartzailearen muga gainditu duelako, ezarritako aldagaiekin era arrakastatsuan betez gainera.

Zalantza izpirik gabe, elkarriketen ondoren audioak idatzizko formatura transkribatu izanak sakontasun handiagoko analisia mesedetu izango lukeen. Halere, planteamenduaren berritasuna dela bide (parte-hartze arloan burututako lehenengo ikerlana da hau), eta proiektuaren bokazio esperimentalak kontuan hartuta, esperientziaren bidez lorturiko erregistroa eta landa-oharretan jasotakoa nahikotzat jo daiteke.

3. Emaitzak: diagnostikoa

Bildutakoa ordenatu eta aztertu ondoren, **emaitzaren txanda da: diagnostikoa**. Jasotako mota desberdinetako datu, kontakizun eta iritzien kantitate handia dela medio, eta aurrekaririk ezean, **izaera deskriptiboaren aldeko apustua egin da, adostasun nagusietan enfokaturia**.

Diagnostiko serio bat lortu ahal izateko beharrezkoa da, halaber, **informazioa diskriminatzeko gaitasuna izatea**, ahalik eta gehien murriztuz horrela zientzia sozialari ezinbestean datxekion nolabaiteko subjektibitatea.

Gazteen parte-hartzearen inguruko diagnostiko hau eremu honetan esku-hartzen duten pertsonen arabera burutu da, profil gazteak lehenetsiz gazteak ez direnen aurrean¹⁰. Nabarmendutako esaldientzat ez da kontuan hartu gazteak ez direnen kategoria.

Aurkezpen hau bi ataletan banatu da: lehenengoak aurretiazko hipotesien ebaluaketa jasotzen du, eta bigarrenak diagnostikoaren bestelako elementu batzuk.

a. Hipotesien ebaluaketa

Premisak baliozkotzeko edo ukatzeko tokia da hau, I2013 hau mugitzen zuten galderei berehalako erantzun moduan hasieran lortutako presazko ondorioak egiaztatzeko lekua.

1. Lehenengoari buruz, gaztetasunaren esanahia elementu eztabaidatua dela deduzitzen zuena, **partzialki baliozkotatuta** geratu da, landan zein ondorengo analisisietan egiaztatu baita gaztetasunaren inguruko gogoeta aldatzen dela, kasuan kasuko belaunaldi-espazioaren eta gizarte-harremanen espazioaren arabera. Era berean, autopertzepzioa aldatzen da norbanakoaren inguruaren eta bere pertzepzio propioen arabera. Gaztetasunaren interpretazioan hainbat kategoria identifikatu daitezke:

Gaztetasuna adin gisa

- › **Adin-tarteak** dira gaztea denaren eta ez denaren ulermenari dagokionean elementu argienak eta adostasun gehien biltzen dutenak.
- › Ez dira esanahi generikoak aurkitzen, kontzeptu komun zehazgabe batean haurtzarora edo gaztarora era lausoan bilduko dituenik. Adostasuna dago haurra izatetik gazte izatera trantsizio bat dagoela, interakzio sozialerako modu berri bat suposatzen duena. Horrela, gaztarora 12 eta 14 urteen bitartean hasten da.

¹⁰ Ikerlanaren estatistiketan ikus daitezkeen moduan, partaide batzuk gazteen kategoriatik kanpo daude, gazte erakundeen kide diren arren.

- › **12-14 eta 26-28 urte artekoak, beraz, gazteak dira halaberrez.** Ez dago taldea borondatez uzterik, horrela hautematen dira kanpotik eta hala hautematen dute beren burua.
- › **28 eta 35 urteen arteko tartearak desadostasun gehiago dakartza, adinak gora egin ahala desadostasunok areagotzen direlarik.** Ez dago nozio hegemonikorik, baina hedatuenak ulertzen du 29-30 urtera arte “gazte” esanahiaren parte dela uler daitekeela. Halere, zenbait profilek sailkapen horretatik kanpo hautematen dute beren burua adin-tartearen azken urteetan. Horren aurka, batzuek gaztetzat dute beren burua 31 urte igarota ere. Pertzepzio hori laguntzen dute bakoitzaren lanbide-eremuko eta nekazal inguruetako estandarrek, kategoria hedatzen dutelarik gutxienez 35 urtera arte.
- › **Leiho aldiaren¹¹** nozio inplizitua existitzen da, ezin dena bizitza heldurako trantsizio gisa ulertu, pertsona gazteak heldutzat hartu baitaitezke ardurak euren gain hartzen dituzten momentutik aurrera. Bizimodu berriek, ugalketa errealtate berriek eta bizi-itxaropenaren handitzeak lagunduta, inorena ez den lur horretako kategoria honek 28 eta 39 urteen artean dagoen adin-tartea barnebiltzen du. Kanpotik ikusita (beheko eta goiko adin-tartearik) normalean ez dituzte gazte moduan hartzen, eta askotan barnetik ere ez. **Hala eta guztiz ere, belaunaldi-talde horri dagozkion berezko kodeak gordetzen dituzte, hurrengo belaunaldiarekin antzekotasun gutxiago dituztelarik.** Adierazpen hau ez dago era esplizituan adostuta, baina gero eta onarpen handiagoa izango duela aurreikus daiteke, talde edo azpi-talde propio gisa hautemateko bilakaera izan dezakeelarik.
- › Gaztetasunaren formulazio positiboak, beraz, adostutako adin-taldea ukitzen du lehenengo, ezbaian dauden goiko tartetean ondorio txikiagoa izanik.
- › Definizio negatiboari dagokionez, **gaztea ez dena** era argian zehazten da **40 urte bete ondorengo** adin-tartean. Modu berean, zenbait jarrera eta bizimodu propiotzat hartzen dira, baina ez dakarte kolektibotik kanpo uztea: adina da gaztea dena eta ez dena banatzen dituen lerro nagusia.

Gaztetasunaren barrutik eta kanpotik hautemandako dimentsio soziala

- › 12013-an zehar, gazte identitatearen barruko eta kanpoko pertzepzioaren kontzeptu komunak agertu dira, adin-tarte gisako esanahia osatzen dutenak.
- › **Gazterien ikuskerak estereotipatuaren errefusatzeari orokorra** da, bai ikuspegi positiboari (erromantikoa) dagokionean, bai ikuspegi negatiboari dagokionean (konformistak, lotsagabeak, etab). Halere, onartzen da ezaugarri negatibo hauetariko batzuk ematen direla gazterien sektore batzuetan (jarrera “pasotistak, erosoak”).

¹¹ 12013 honetan “Erdi-gazteak” moduan aipatzen da, gutxi gorabeherako eran.

- › Hala eta guztiz ere, jarrera axolagabeak, gazteei berezkoak zaizkienak izatetik urrun, motibazioa galdu duen eta bere gaitasunen jakitun ez den belaunaldi batekin lotzen dira gehiago. Horrela, ondorioztatzen da **gazteak gauzak aldatzeko gai direla nahi izanez gero.**
- › Horrela, **kritikoa izan litekeen** kolektibo baten aurrean gaude, hau osotasunean garatuta ez dagoen elementua bada ere.




“Kexu gara baina ez gara aktibatzen”

Gizon gaztea. Elkarriketak

- › Atsekabe eta geldotasun sentipen honen zergatia gazteria egoera ekonomikoak bereziki ukitutako kolektiboa izatean dago. Era transbertsalean, ondorioztatzen da guztiek zailtasun ekonomiko handiagoko egoerak igarotzen dituztela, elementu praktiko-materialak ukituz, baina batez ere espektatiben narriadura eta **ziurgabetasuna betikotzea** dakarrelarik.
- › Bizi baldintzen narriadura partzial samarra aurreikusten den arren -zeina emigrazio, pentsiorik ez egotearen aukera eta langabezia / prekarietatea moduko kontzeptuen agerpenean zehazten den- bestelako alderdi batzuetan -**bizitza-luzera, lorpen zientifiko-sanitarioak eta teknologikoak eta zenbait bizitza-estandar**- aurreratuko denaren onarpen inplizitua edo esplizitua dago. Gutxienez oraingoz, ez da inboluzio osoa.
- › Zailtasun ekonomikoko egoera hau dela eta, era hasiberrian, zati garrantzitsu bat bere aitite-amamen belaunaldiarekin identifikatuago sentitzen da, bere gurasoen belaunaldiarekin baino. **Belaunaldiarteko hausturaz hitz egiten da, errelebo faltarekin batera.**

1. BELAUNALDIEN KOADROA



- › Zabaldua dagoen pertzepzioa da gazteak era gutxiesgarrian ikusiak direla gizarteko gainontzeko sektoreen aldetik, eta ondorioz, egiten dutenari balio txikiagoa aitortzen zaie, emaitza bera edo hobea lortu arren. Honek **euskal gizartearen gerontokrazia** pertzepzio nabarmena dakar.
- › Era berean, gehiegizko babesaren onartzen da, **efektu perbertsoa**¹² dakarrena: erantzukizunak hartzeko ezintasuna. Dena errazteko asmoarekin orain guztia zailagoa da.



“Ez digute uzten erantzukizunak hartzen, erabakitzen”

Emakume gaztea. Elkarrizketak

- › Gazteria **ikusezintasunean** dago. Existitzen ez denak ez du gizartean esku hartzen.
- › Ñabardurekin, onartzen da gazteen egungo belaunaldia bereziki **ondo trebatuta dagoela, informaziorako sarbide ia unibertsalarekin, aurreko belaunaldientzat ezezaguna**. Autopertzepzio elementu indartsu honek talka egiten du kanpotik jasotzen duten ikuspegi gutxiesgarriarekin.
- › Agerikoa ez bada ere, **indibidualizazio prozesuak** indibidualismoak baino era zintzoagoan islatzen du gazte batzuegan ematen den dinamika. Honek gizartea bere osotasunean ukitzen badu ere, belaunaldi honetan agertzen da intentsitate handiagoz. Gazteek euren kide batzuek dinamika hau agertzen dutela nabaritzen dute, eta orokorrean testuinguru indibidualizatuagoan hautematen dute beren burua.
- › Era berean **taldeak gazteen artean duen garrantzia** egiaztatzen da. Taldeak (kuadrilla, gertuko ingurua) laguntzen du, baldintzatzen du, motibatzen du, iradokitzen du, azken finean, era oso nabarmenean esku hartzen du gaztearen bizitzan. Hau autopertzepzioaren funtsezko elementu bat da.
- › **Denborarik gabeko** belaunaldi baten aurrean gaude, “saturatua”, **gehiegi trebatua eta gehiegi lan egin** behar duena. Ideia honen eragina aurrerago ere azalduko da.
- › Gazteek badituzte **balio komunak**. Orokorrean, gizartearen gainontzeko sektoreak baino irekiagoak eta sortzaileagoak direla uste dute, baita arduratsuak direla ere.
- › Oro har, gazteak **gizarte ereduaren isla** dira, aspektu positibo zein negatiboetan. Espektatiben atsekabe jarraituak belaunaldiaren taldekatze kuota handiagoak eta jabeakuntza handiagoko egoerak lortzea suposatzen lezakeela uste da.



“Zerbait gerta daiteke”

Gizon erdi-gaztea. Elkarrizketak

2. Bigarren hipotesiari buruz, parte-hartzearen arrazoi, zergati, erabilgarritasun eta zentzuaren narriadura posiblea azaltzen duena, **hasierako planteamendua partzialki baztertu behar da, gazteen dimentsio parte-hartzailean hondatze garrantzitsurik ez baita nabaritu**, baita bere formulazio tradizionalean ere (ikus ondorioen atala). Halere, **inplikazio era berriek gazteen parte-hartzeari bultzada** eman diotenaren premisa egiaztatuta geratu da, azpi-hipotesietan adierazitako zentzuan.

Parte-hartzearen zentzua

Motibazioak eta egoera esplizituak

- › Parte-hartzearen inguruko diskurtsoaren azalean, erdialdean kokatzen da **motibazio transzendentalei** egiten zaion aipamena, aldaketarakoak, kontzientziazkoak, eraldatzea bilatzen dutenak; irudikatu beharrekoak diren ideia eta balioei sendo loturikoak, pentsaera kritikoari eta konforme ez dagoenari berezkoak zaizkienak.
- › Horregatik **parte hartzea tresna boteretsua da uste osoak irudikatzeko**. Uste hauek edukiz betetzen diren lekua da, adierazten diren lekua.
- › Aurrekoarekin bat, **parte-hartzeari lotutako balioak** ia erabat **positiboak** direla eta, inplikatzeko arrazoi garrantzitsuak dira. Gaitasun berriak garatzeko zein marko teorikoak (pentsatzen duguna) praktikoarekin (egiten duguna) bat egin dezan.
- › Parte hartzea konpromiso era bat da, pertsonala zein kolektiboa (hurbileko taldearekiko eta gizartearekiko bere osotasunean). Erantzukizunak eta eskubideak dakartza.
- › Modu berean **gizarteratzea eta giza-talde bat erdiestea** parte-hartzearen ahalmen nagusienetarikoa da. Antzekotasunak elkarbanatzeko bide ematen duten adiskidetasun berrien aukera edota jada existitzen diren adiskideak mantentzekoak, gazte asko eramaten ditu parte-hartzea harreman sozialen kohesio-tresna gisa erabiltzera.
- › Honen osagarri gisa sartzen dira faktore **emozionalak**, afektuaren bilaketa, errealizazio pertsonala eta psikologikoa.

“Lagunduta sentitzeko”

Gizon gaztea. Elkarriketak

- › Horregatik talde baten parte izateak, “gu” baten parte, parte hartzeko motibazioen artean arrazoi indartsua da, **“berdinen arteko taldearen”** eragina kontuan hartu behar delarik, interes komunak elkarbanatuz parte-hartzea interesok gauzatzeko bide moduan erabiltzen dituztelarik.
- › **Berritasunaren eta ezezaguna denaren** botereak ere gazteen parte-hartzearen elementu motibatzaile moduan jarduten du. Osagai esperimental hau parte-hartzeak eskaintzen duen errealitate berrietara, pentsamolde eta

jarduteko modu desberdinetara sarbidea izateko aukerarekin bat dator. Egonezinak dituen gazte-profilari erantzun bat da.

- › **Ezagutzen transmisioak**, igorlearen eta jasotzailearen zentzuan, zeregin garrantzitsua du baita. Parte-hartzea hezkuntza eta ikasketa era bat da.
- › Parte-hartzea **identifikazio dinamika** bat da, pertsona gazteari eta bere dimentsio sozialari esanahia ematen diona. Identitate pertsonal eta kolektiboaren bilaketan, parte-hartzeak leku nabarmena du.
- › Gizarteetako bizimodu garaikideekin lotutako **gustuek** parte-hartzearen fenomenoazaltzen dute baita. Parte hartzen da “gustuko” delako jardutea bera eta eremu jakin bat, eta ondorioz gogobetetzea sortzen du.

“Gogoko dut mundu hau, umeeekin egotea”

Emakume gaztea. Elkarrizketak

- › Parte hartzen dutenek beren inguruan erreferentziazko pertsonatzat dute euren burua. **Lidergo elementu bat da.**
- › Fidatzera, espektatibak eta uste osoak jartzera gonbidatzen duen errealitateari buruz ari gara.

“Parte hartzen dut proiektuan sinesten dudalako”

Gizon gaztea. Elkarrizketak

- › Boluntariora eta gizarte-ekintzako erakundeen kasuan bereziki, elkartasuna bestelako motibazio bat da, hau da, “laguntzeko” eta beste pertsona batzuen ongizateari ekarpena egiteko asmoak, eta, era globalago batean, gizarteari bere osotasunean laguntzeko intentzioa.
- › Era berean, parte-hartzea **elkarrekiko laguntzarako** mekanismo bat da, modu sinergikoan hartzen eta ematen den lekua.
- › **Askatasun era** bat da, apatiarekin hausteko eta besteen erabakiekiko edota gizarteke arauetara menpekotasuna apurtzeko modu bat.
- › **Parte hartzeak berak parte-hartze gehiago ekar dezake.** Ohikoa da eremu edo erakunde batean parte hartzen duten gazteek aldi berean ere beste batean/ batzuetan egitea.
- › Baliteke **egoera sozioekonomikoak** profil gehiago eta desberdinak parte hartzerantz bultzatzea.

“Pixkanaka txipa aldatzen doa eta jende gehiago hurbiltzen da”

Gizon gaztea. Elkarrizketak

- › Aditzera ematen da adin-tarte gazteagoak progresiboki gehiago hurbiltzen direla errealitate hontara. Hau bat letorke gazteen artean bestelako egoerak ere aurreratu izanarekin.

Motibazio erdi-esplizituak eta inplizituak

- › **Familia-jarraipenak** oso eragin esanguratsua du, bereziki astialdia moduko errealitateetan. Lehenengo eta bigarren graduak ahaideek parte-hartze arloan edo erakunderen batean aurretik aritu izanak parte hartzeko aukera handiagoa erakutsi ohi du. Familiaren interesek eta marko ideologiko-diskurtsiboek ere parte-hartzea sustatzen dute bestelako sektoreetan.
- › Familia inguruak positiboki eragiten duen era berean, parte-hartzea **inguru horretatik irteteko** eta giro desberdin batean gizarteratzeko espazio gisa erabiltzen duten profilak ere badaude.
- › Parte-hartzea, batzutan, **bizi-ibilbidearen** parte da, haurtzaroan hasten dena eta gaztaroan finkatzen dena. Norberaren garapeneko esperientzia bat da.
- › Parte-hartzeak **gaztea subjektu gisa** kokatzen du, besteen erabakien menpe dautela sumatzen duten testuinguruan. **Arduratzten dituzten arazoen gainean erabakitzeko gaitasuna** parte hartzera erakartzen duen faktoreetariko bat da.

“Kontuan hartuak gara, erabakiak hartzen ditugu”

Emakume gaztea. Elkarriketak

- › Gainera, erabakiak hartuz, dakartzan elkarriketa, aurretiazko adostasun eta desadostasunen bidez, **demokraziaren gauzatzea** lehenengo pertsonan esperimentatzen da.
- › Parte-hartzea **lan mundurako zubi** izan daiteke, eta horrela hautematen da. Trebakuntza-ibilbide moduan hartzen denez, badu osagai ekonomikoa, berehalakoa ez bada ere, baina bai espektatibekin lotutakoa.


“Lehen kredituak ematen zituzten unibertsitatean eta asko horregatik hurbiltzen ziren”

Emakume erdi-gaztea. Elkarriketak

- › Profil zehatz bat dago, parte-hartzeari hurbiltzen zaiona behin arazo bat duenean, **ahokularitza eta babes** bila. Horrela, elkartzea tresna erabilgarri gisa ikusten da arazoei irtenbidea bilatzeko. Hau ohikoa da eremu sindikalean.
- › **Bidaiaitzeko aukera** parte hartzeko pizgarri bat da. Antza denez, inplikatzaren diren gazteen profilek beste herrietara, lurraldeetara eta baita beste herrialdeetara bidaiaitzeko aukera gehiago izan ohi dituzte parte-hartzeari esker.
- › Batzuetan parte hartzea **errealitate edo sektore oso bate gainbehera edo desagerpena ekiditeko** modu bat da. Parte-hartze inperatibo baten antzekoa, ia nahitaezkoa.

- › Proiektuak amankomunean jartzeko aukera, hein handi batean, **baliabide erabilgarrien** arabera da. Baliabide hauek diru-laguntzen edo bestelako laguntzen bidez lortzeko aukera parte-hartze praktikaren pizgarria da.
- › Parte hartzeko **motibazioen aldaketa inplizitua** hautematen da, elementu **konfesionalekin** zerikusia duten arloetan bereziki. Egungo inplikazio formen artean izaera laikoa gailentzen da, kolektiboa baina norbanakoa errefusatzan ez duena, eskubide zibilei lotutako balioak eta bizimoduak lehenesten direlarik.

2. BALIO ETA JARREREN MAPA



- › Parte-hartzea **astialdi era moduan** ulertzen da, praktikan jartzeak gogoko den jarduera batean denbora ematea suposatzen du eta ezagutzak lortzea aldi berean.
- › **Dimentsio pertsonalak** garrantzi nabarmena du parte-hartzean, beronen eragin positiboa arlo pertsonalean parte hartzeko pizgarri bat da.

“Neurri batean berekoi samarra da. Parte hartzen dut niri ekarpena egiten didalako”

Emakume gaztea. Eztabaida taldeak

- › Parte-hartzea **aldaketarako eragile** gisa onartzen da, errealtate jakin bat eraldatzeko tresna.
- › Iraunkortasunez parte hartzen dutenentzat, nolabaiteko izaera “adiktiboa” du. Inor ez da ausartzen parte hartzeari noiz utziko dion iragartzera, onartu arren erakunde edo ardura batean, ziklo bat agortzen denean beste bat irekiko dela.



“Hala eta guztiz ere, uste dut parte hartzeak ‘engantxatu’ egiten duela”

Emakume gaztea. Elkarriketak

- › “Parte hartzeak ez du dirurik balio”, ez behintzat era garrantzitsuan. Gastu ekonomikoa dakarten bestelako jardueri alternatiba da.
- › Metodo barne-hartzaileak, erakunde eta talde desberdinetan, parte-hartzeari hurbiltzeko eta taldean mantentzeko pizgarri gisa hautematen dira. EAE-n fenomeno mugatua izan bada ere, **m15-aren formen eta bistaratzearen** inaktu garrantzitsua hor dago, **parte-hartze berriaren sinbolo gisa**.
- › Aurrekoarekin lotuta, **noizbehinkako inplikazioa** (esporadikoa) edota **konpromiso partziala** (iraunkorra baina denboran mugatua) indar handiz agertzen zaizkigu. Hau, negatiboa izan badaiteke ere, hurrengo atalean azaltzen den moduan, profil berriak maila desberdinetan parte hartzen hasteko formula ere bada.
- › Noizean noiz, ulertu da modu batean zein bestean, beti parte hartzen dela, eta zaila dela parte-hartzea zer den eta zer ez den zehaztea.



“Beti parte hartzen da zerbaitetan, klasean, bozkatzean, zergak ordaintzean...”

Gizon gaztea. Eztabaida taldeak

- › Horretaz gain, parte hartzea hautemana izateko modu bat da, “izatekoa” eta “egotekoa”. Beraz, **eduki existentziala** du.



“Kontuan izan gaitzaten”

Emakume gaztea. Eztabaida taldeak

Parterik ez hartzeko zergatiak

- › Azaletik, diskurtsoak parte hartzerik ezaren erantzukizuna **kanpokoak edo orokorrak** diren eragileei esleitzeko joera dago: indibidualismoari botatzen zaio errua, komunikabideetan ematen den ohiko irudiari, kohesio sozialaren apurketari, ezjakintasunari edo fedegabetasunari.
- › Analisisan sakontzen denean, hautematen da **gazteek esfortzu berdinagatik esker on gutxiago jasotzen dutela, itxuraz orientazio meritokratikoa duen gizarte baten logikak okertuz**. Honen ondorioa da modu estrukturalen parte-hartzeari pizgarria kentzen zaiola. Era horretan, **ezintasuna, frustrazioa, desmotibazioa** etengabeak dira kontakizunean.



*“Uste dut ez direla hurbiltzen ez direlako gai sentitzen.
Ez diote euren buruari garrantzirik ematen”*

Emakume gaztea. Elkarrizketak

- › Ez dago **komunikazio** nahikorik gainontzeko gazteekin eta, bestalde, errealitate hau ikusezin bihurtzen da. Parte hartzen dutenek pentsatzen dute besteek maiz ez dakitela benetan zertan ari diren.
- › Aurrekoarekin batera, **parte-hartze jardueraren hutsaltasunaren** nozioa ematen da.

“Uste dute ez duela ezertarako balio”

Gizon gaztea. Elkarrizketak

- 
- › **Autokritika** ariketa bat burutzen da, aitortzean askotan jada parte hartzen duten kolektiboak direla pertsona gazte berriei hurbiltzen ez zaizkienak, edota ekarpenei ixten zaizkienak.
 - › Aldi berean, pertsona berri batek parte hartzea lortuta ere, ez zaio bere gaitasun/espektatibei egokitzen den eginkizunik eskaintzen, **bertan behera uzten** amaitu dezakeelarik.
 - › Azpimarratzen da **lotura bat** dagoela beti, pertsona batek edo gehiagok beste batzuk parte hartzera bultzatzen dituztela. **Zubi-profil** hauek emango ez balira, ez dirudi gazte berriek parte hartuko luketenik.
 - › Parterik hartzen ez dutenek **estereotipodun ikuspegi** batean eror daitezke, balizko hurbilketa baterako oztopo dena. Estetika jakin bati edo ideia zehatz batzuei lotuta egotea, edota norberarentzat denbora gutxi izatea dira ohiko iritziak.



“Kontxo, ez zara sekula irteten, esaten didate”

Emakume gaztea. Elkarrizketak

- › Kanpotik ikusita, nolabaiteko **mesfidantza** ematen da parte-hartzearekiko, beronen azkeneko arrazoiak zalantzan jartzen direlarik.

“Ez dute sinesten altruista denik”

Gizon gaztea. Elkarrizketak

- 
- › Itxuraz, parterik hartzen ez duten gazteek **bestelako lehentasunak** dituzte, euren astialdia jarduera akritikoetan edo kontsumoari lotutako jardueretan.

“Nahiago dute play-arekin etxean egon”

Gizon gaztea. Elkarrizketak

- › **Sare sozialak**, bere aldetik, pertsonen **euren desadostasuna adierazteko espazioa** izan daiteke, inplikatzeko **beharririk izan gabe**.

Eztabaidagarria da adierazpen modu honek eraginik duen. Honen inguruko adostasun argirik ez dago parte hartzen dutenen aldetik. Izan ere, profil hauek sare sozialen ohiko erabiltzaileak izan ohi dira.

- › Parte hartzen dutenen aldetik **nolabaiteko ebaluaketa zorrotza** onartzen da, parterik hartzen ez duten pertsonetikiko, urruntze handiagoa eragiten duena.

“Egia esanda, epaitzen ditugu”

Gizon gaztea. Eztabaida taldeak

- › **Ezagutzen ez denari beldurrak** parte hartzerik eza azaldu dezake baita.

“Batziek ez dute nahi euren erosotasun gunetik irteterik”

Emakume gaztea. Eztabaida taldeak

- › Askok **arazo bat izan arte** itxaroten dute inplikatzeko, parte hartzeko arrazoietan adierazitako zentzuan.
- › **Belaunaldi apatiko eta akritikoenaren** aurrean gaudenaren irudiak bere horretan jarraitzen du, baina atzerakada argian. Halere, sortzen ari da belaunaldi hau ezkortzat duen iritzia.

“Gaur egungo gazteak gogorik gabe daude”

Gizon erdi-gaztea. Eztabaida taldeak

- › **Egoera sozioekonomikoa**, batzuetan talde edo erakundeekin elkarlanean aritzeko pizgarri den modu berean, zailtasun gehigarri gisa agertzen da, zailtasun gehien dituzten gizarte-mailetan bereziki. Honek parte-hartzearen elitizazioa ekar lezake.
- › Lehenago esan den moduan, **belaunaldi erreleboan zailtasunak** parte-hartzea oztopatzen du. Horrek garrantzi berezia hartzen du jada trebatuta dauden gazteek, errelebo falta dela eta, erantzukizun berriak hartzen ez dituzten une eta espazioetan.

- › **Batera lan egiteko ezintasuna** aipatzen da, proiektu komunak garatzekoa. Era osagarrian, konpromiso faltaz hitz egiten da, epe ertain eta laburrean erantzukizunak hartzeko zailtasuna.
- › Parte hartzerik ezaren adiera arduragabeen artean dago beronen **erabilera desegokia**, sumindura sortzen duena.



“Eta grebara doazenak baina manifestaziora ez?”

Gizon gaztea. Eztabaida taldeak

- › Ulertzen da **inoiz parterik hartuko ez duten gazteen poltsa estrukturala** dagoela, gizartean eragiteko beste bitarteko batzuk dituztenak. Parte hartzerik eza, kontzientea izanez gero, zilegi dela uste da.
- › Baliteke baita **desadostasunak** parte hartzerik eza azaltzea. Ez badute parte hartzen izan daiteke ez daudelako ados, ez dituztelako problematikak, analisiak, irtenbideak edota agenda konpartitzen.

Azkenik, beronen existentzia aitortzen bada ere, ez da arrazoia ulertzen. Lehenik eta behin jada existitzen den aukera zabalarengatik, eta bigarrenik, **logika parte-hartzaitik** begiratuta, gustuko ez den zerbait aldatzeko, inplikatu beharra dagoelako.

- › Parte hartzen dutenen edo parte hartu dutenen artean, **hainbat zailtasun** adierazten dira:

Erritmoen eta denboraren erabilera, “nazka-nazka egin” dezakeena, parte hartzen duenak inbasibotzat hartuz gero.

Honekin batera, espazioen bikoiztasunak, eraginkortasunik eza eta parte-hartze dinamikaren beraren antzutasuna.

Inplikazio maila desberdinak, batzuetan “parte-hartzeak kartara” eragiten dituztenak, taldeentzat denboran zehar eutsiezinak.

Izaera baztertzaila duten azpi-taldeak sorrera, orokorrean erabakitzeko bokazioarekin.

Litekeena da parte-hartze esperientzia negatiboa jasan dutenek berriro ere saiakerarik ez egitea.

- › Errealitate materialak: ikasketetakoak, lanekoak, afektiboak, sozioekonomikoak. **Denbora falta**, *full time* unibertsitate eredu berriari oso lotua, indar handiz agertzen da behin eta berriz, parte-hartzerik eza zein parte-hartzearen etetea azaltzeko. *Full time* ereduak da.



“Gizarteak eskakizun-maila altua jartzen du gazteengan. Ikasketak, ezagutza gehigarriak, aurreneko lanak... ez dugu ezertarako denborarik. Eta lehen ez zen horrela”

Emakume gaztea. Elkarrizketak

b. Diagnostikoaren beste elementuak

Hipotesi nagusien ebaluaketaren osagarri gisa, diagnostikoan adierazi behar diren bestelako aspektu batzuk ere identifikatu dira. Egiatzapen hauek landa-lanak aurrera egin ahala agertu ziren, geroago sailkatuak eta analizatuak izan direlarik. Ondoren adierazten dira:

- › Gazteen parte-hartzea **errealitate feminizatua da, eta baita ere parte-hartzearen lidergoa**. I2013-n hamar kasutik sei izan dira emakumezkoak, jarduera-eremuen arabera desberdintasun aipagarriarik gabe. Diagnostiko-elementu hau bat dator Gazteen Euskal Behatokiaren datuekin, 2012 urtean burutu eta 2013ko abenduan argitaratutako ikerketak aditzera ematen zuelarik boluntariotzako profilen artean emakumezkoen proportzioa gero eta handiagoa dela¹³.
- › **Euskara presente dago** gazteen parte-hartzean, **baina hizkuntza nagusia izatetik urrun geratzen da**. Erabili beharreko hizkuntza egoeraren arabera zehaztu zelarik, euskaraz eta gaztelaraz egindako elkarrizketen kopurua berdintsua izan zen I2013 honetan. Bi hizkuntzak tartekatuz egindako dinamika elebidunen kopurua azpimarratu behar da.
- › I2013-ren izaera ausazkoak eta ez inbasiboak, desio ez zen ondorio bat ekarri zuen. Aurretik adierazi den moduan, kontaktuan jartzerako unean boluntarioak bilatzen zirela esaten zen, gazteen parte-hartzeari buruzko ikerketa batean parte izateko. Erakunde guztiak gazte-taldeak edo izaera transbertsalekoak izanda ere, gazte-eremua zutenak edota pertsona gazteak zituztenak ziren denak. Halere, erakundeen kopuru garrantzitsu batek, nabarmenki gazteak ez ziren profilak¹⁴ bidali zituzten ordezkariz gisa –ikerketa honek adinaren arabera sailkapen hirukoitzak darabil– I2013 honetako 10 partaidetatik ia 2 suposatu dutelarik, intentsitate handiagoz errealitate formalean eta EGK-koetan. Horrek gazteen parte-hartzearen zahartzeaz hitz egitera garamatza, erabakiak hartzearen eta ordezkaritzaren eremuetan espezifikoki, izaera sinboliko handiena dutenak. **Belaunaldi erreleboaren faltaren eta gazteen jabeakuntza mugatuaren faltaren egiatzapen enpirikoa suposatzen du honek**.
- › Esplizituki edo inplizituki hautematen da, kasuaren arabera, zailtasunak zailtasun, **EAE-ko testuinguruak parte-hartzea nabarmenki gutxiago oztokatzen duela**, estatuko beste toki batzuekin alderatuta. Halere, egoera proposagoa duten Europako beste leku batzuen aipamena etengabea da, Euskadi bataren eta bestearen erdibidean kokatzen delarik.
- › **Politikarekiko, eta espezifikoki, ordezkarizko politikarekiko aldentzea** ematen da, Elizarekiko gertatu denaren antzekoa, baina askoz ere egoera aurreratuagoan dagoena. Ikuspegi “antipolitiko” hau oso urrun dago oraindik agerian geratzen den mailatik. Intentsitate handiagoz ematen den profiletan, m15 bezalako mugimenduetan islatzen da plano sinbolikoan. Halere, egia da esperientzia hori iraganean kokatu ohi dela, hasiera batean ezarritako helburuak lortu ez zirela uste delarik.

¹³ Gazteen Euskal Behatokia <https://www.euskadi.net/noticia/2013/el-7-de-la-juventud-de-la-capv-realiza-actualmente-actividades-de-voluntariado/r58-7657/es/>.

¹⁴ Gazteak: adin kalkulatu 16 eta 30 urte bitartekoa. Erdi-gazteak: 30 eta 35 urte bitartekoak (kalkulua), jarrerari dagokion profilen arabera. Gazteak ez direnak: 35 urtetik gorakoak. Ikerlariak ez zuen adina era esplizituan galdetzen, parte-hartzaileen erantzunak ez baldintzatzeko helburuarekin.

- › Beharrezkoa da aurreko ataletan adierazitako denboraren erabilerrari erreparatzea berriro ere, gazteak larriki kezkatzen dituen aspektua delako. Belaunaldi hau **denborarik gabeko belaunalditzat** jo daiteke, zeinean gehiegizko babesak, bikaintasun akademiko-profesionalaren bilaketak, gehiegizko estimulazioak; erregela guztiak aurretiaz araututa daudela dirudi. Parte-hartzea, prozesu sortzaile eta progresiboa den heinean, ukituta gera daiteke egitate hau finkatzen bada.
- › **Sare sozialen erabilera hegemonikoa da parte-hartzen duten profilen artean.** Ohiko jarduerak antolatzen dituzten tresna erabilgarriak dira, parte-hartzaileei azken urteotako aldatzei buruz galdetzerakoan erantzun arruntena hau izan delarik. Halere, aho bateko adostasuna dago kontaktu digitalak ez duela kontaktu fisikoa ordeztu, ez delako hain eraginkorra eta erabakitzailea. Honek adierazten du, alde batetik, gaztetasunaren eta parte-hartzearen eboluzioa etengabea dela, eta bestetik, giza kontaktuak garrantzia galduko lukeen balizko futurista baten ukapena.
- › **Etorkizunak ezinezona sortzen du gazteengan.** I2013-ren helburu zehatza ez izanda ere, behin eta berriz aipatu zen etorkizun hurbilaren gaineko ziurgabetasuna, atzeratu behar izateko benetako aukera eta, talde honek jaso behar dituen erakunde pentsio-sistema mantenduko denaren inguruko zalantzak. Oro har, ongizate estatuen oinarrien gaineko zalantza agertu zen.



c. Lurralde historiko bakoitzaren berezitasunak

Ikerlan honen laginak ez du ahalbidetzen lurralde bakoitzeko baliozko emaitzak lortzerik, alta, EAE-ko diseinuaren baitan lurralde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartu direnez, **aurkitutako zantzuen sarrera bat** egin daiteke, indizio moduan ulertu beharko direnak edozelan ere, lurralde-eremu bakoitzeko datu zehatzen banakapena eginez baita.

› Álava-Araba


Arabian 15 jarduera burutu ziren guztira, 24 parte-hartzaile bildu zituztenak (horietariko 18 eskusiboak) eta 15 erakunde guztira. Lurraldearen ezaugarri demografikoek laginaren osakeran eragina izan zuten, egoitza Vitoria-Gasteizen zuten erakundeekin 14 jarduera burutuz eta jarduera bat Laudioako erakunde batekin. Herrialde osoan dauden taldeak dira, jarduera-eremu desberdinak dituztenak.

Maila diskurtsiboan, Araban EAE-ko antzeko egitura errepikatzen da, gazteen eta parte-hartzearen kontzeptuetan eraldatzeko eta aldatzeko gaitasunak norbanakoan


ARABAN GUZTIRA ELKARRIZKETETAN



DINAMIKA (EZTABAIDA TALDEA)



PARTE HARTZEARI BURUZKO IKERKETA. ARABAN GUZTIRA



jatorria duela ulertzen delarik gehienbat. Parte-hartzearen zentzu pedagogikoa hautematen da eta instituzioek gazte erakundeekiko duten jarrerarekin nolabaiteko atsekabea ere, horien artean nabarmentzen direlarik hiriburuan dagoen boluntariatzaaren erreferentziazko zentroaren (Erdur) itxierari egiten zaizkion kritikak.


Proporzionaltasunari dagokionez, lurralde honetan EGK-ko kide diren erakundeen presentzia orekatua bada ere, nabarmendu behar da probintziaz gaindiko erakunde gutxi dutela bertan euren egoitza nagusia.

Elementu espezifiko gisa agertzen da gazteen lokalen (lonjen) errealitatea, herri desberdinetan hedatuta dagoena, eta *“Euskadiko Gazteen Joeren Koadernoak: Gazteen lonjak eta lokalak EAEn”*¹⁵ ikerketaren emaitzetan oinarrituz, lokalek dimentsio pribatua eta kolektiboa barnebiltzen dituen logika mistoari erantzuten diote. Hori agerian geratu da I2013-an, errealitate honi buruz esan dena bat etorri delako ikerketa honetako profilekin.


› Bizkaia

Bizkaian I2013-k 37 jarduera burutu zituen, guztira 74 parte-hartzaile (horietariko 67 eskuboiak) eta 40 erakunde bildu zituztenak. Jardueron banaketan, Bilbo erreferentziazko toki zuten erakundeak gehiago izan ziren, baina Basauriko, Amorebietako eta Leioako (UPV-EHU) taldeek ere parte hartu zuten.


BIZKAIA GUZTIRA ELKARRIZKETETAN



DINAMIKA (EZTABAIDA TALDEA)



Parte-hartzearen kontakizunak hiriko osagai bat du Bizkaian, segur aski Bilboko



hiri-eremuaren eragina dela bide. Parte-hartzea bizi baldintza materialekin lotzen da neurri handi batean, lurralde honetan maiztasun handiagoz aipatzen direlarik emigrazioa zein kulturartekotasuna. Era berean lotura indartsua dago parte-hartzearen eta lan-arloaren artean.

Horrekin alderatuta, joera dago eguneroko keinu txikiei garrantzia emateko, hobekuntza globalak lortzen laguntzen dutelakoan. Parte hartzea eguneroko jardura bihurtzen da horrela, tokian tokitik orokortasunera bideratuta. Era berean banakotasuna presente egon ohi da diskurtsoan.


Modu absolutuan, Bizkaian ematen da erakunde eta parte-hartzaile kopuru handiena, baina biztanleriari dagokionez egoera ez da mesedegarria. Honek suposatzen du talde bakoitzari biztanleria potentzialaren kopuru handiagoa dagokio, elkartegintzako errealitateek gizarte osoarengan eta gazteengan duten eragina gutxituz.

Kopuruari eta proportzioari dagokionean EGK-ko erakunde gehien dituen lurraldea da, probintziaz gaundiko erakundeak kasu gehienetan kokatzen diren herrialdea delarik.


› Gipuzkoa

Gipuzkoan 20 jardura burutu ziren, 36 parte-hartzaileekin (horietako 31 eskusiboak) eta orotara 20 erakunderekin 12013-an. Bere osatera anitzena izan zen lurraldeari dagokionez, osatera demografiko sakabanatuari erantzunez. Donostian burutu ziren jarduerak, baina baita Bergaran, Elgoibarren, Usurbilen eta Ordizian.


GIPUZKOAN GUZTIRA ELKARRIZKETETAN



DINAMIKA (EZTABAIDA TALDEA)



PARTE-HARTZEARI BURUZKO IKERKETA. GIPUZKOAN GUZTIRA



Gipuzkoan identitate kooperatiboak eragin handiagoa ematen dio parte-hartzeari gizartearen osotasunean. Bien arteko elkarrenergina ohikoa da, eta parte-hartzen duten eta ez duten profilen arteko haustura txikiagoa da. Elkartegintzako ehun handiagoa, proportziozkotasunari dagokionez, eta honek lurralde osoan duen hedapen orekatua, dira lurraldeko espezifikotasun nabarmenenak.

Honek hausnartzera bultzatzen gaitu, bai parte-hartzearen “asetzeaz”, baita beronen egikaritzea neurtu eta antolatzearen garrantziaz ere, parte-hartzaileak gehiegi ez kargatzeko helburuarekin. Parte-hartzearen eta kultur-adierazpenen arteko lotura begi bistakoa da, azken hau gazteak aurkezteko eta inplikatzeko bide bat delarik.

Ibilbide parte-hartzailea handiagoa duela eta, profilak metodikoak izan ohi dira, parte-hartzea burutzeko formari garrantzia ematen diotenak. Ikerlana burutzeko uneen, egiaztatu ahal izan zen argudio ekonomizisten eragina txikiagoa zela, herrialdearen egoera sozioekonomikoa erlatiboki hobea dela eta.

EGK-ko kideei dagokionez, lurraldean dauden erakundeek kopurua nabarmena izanda ere, Arabaren kasuan gertatzen den bezala, probintziaz gairik ez duten erakundeek artean bakar batzuk dute Gipuzkoa erreferentziazko inguru gisa.

4. Ondorio eta gomendioak

Atal honetan azaltzen denarekin batera, diagnostikoan garatu berri diren aspektuak ere ondorioen parte direla ulertu behar da.

I2013-ak **etengabeko eboluzioan dauden bi eremu** jorratu ditu: parte-hartzea eta gazteria. Ikerlan honetako lehenengo egiaztapen globala da **ez dela posible analisi estatistikoa**, gazteak nolakoak diren edo parte-hartzea zer den asmatzeko. Etorkizunean burutu litezkeen gazteen parte-hartzearen inguruko ikerketek berriz ere gaztetasuna eta parte-hartzea zer diren galdetu beharko dute, eguneratu gabeko marko kontzeptualetan ez erortzeko esfortzua eginez.

Gaztetasuna existitzen denez, aldatzen jarraituko du. Ñabardurez eta eztabaidan dauden elementuez haratago, baieztapen hau egiteko kohesio elementu nahiko egiaztatu dira.

Euskadiko egungo gazteek kolektibo nahiko definitua osatzen dute, adin-tarte zentral argi batzuen inguruan elkartua, eta bukatu gabeko birdefinizio prozesu baten egon litezkeen beste adin-tarte periferiko batzuen inguruan taldekatua.

Zenbakiaz haratago, **bizi baldintza material-zehatzei lotutako espektatiben haustura kezkagarriak** ukitutako gazte belaunaldi baten aurrean gaude. Beste garai baten gazteen definizio identitarioaren protagonista nagusiak aspektu kulturalak, jarrerak edo bizimoduak baziren ere, gaur egun kolektiboaren **autoerreferentzia arlo sozioekonomikoan** kokatzen da.

Bada, etorkizunean beraien gurasoen bizi-maila bera izango zutela uste zuten galdetuta, parte-hartzearen profil gazteen gehiengoaren erantzuna ezezkoa izan zen, eta edozein kasutan zalantzarako zirikitua uzten zen. Hau da, **ziurgabetasuna betikotzea**.


3. ESPEKTATIBEN BILAKAERA



- Aurrerapen teknologikoa
- Bizitza-luzera / Bizitza aktiboaren luzapena




- Lotura sozialak
- Familiaren babesa
- Oinarrizko zerbitzu publikoak



- Narriadura sozioekonomikoa
- Autonomia partziala / berandukoa
- Bizitza proiektua etetea

Adiera kolektibo honekin batera, gaztetasuna indibidualizazio dinamika batean murgilduta dago gaur egun, bere talde-indentitatea ulertzeko eremu pertsonalari erreparatzea beharrezkoa delarik.

Parte-hartzeari dagokionez, ezin ondorioztatu daiteke hondatze orokorturik ematen denik. I2013-an egindako ebaluaketan proportzio berean identifikatzen ziren gazteen inplikazioak behera egiten zuen eta gora egiten zuen kasuak, gehienek hautematen zutelarik aurreko garaiekin alderatuta parte-hartze mailak mantentzen zirela.



Gainera, ohikoa da **parte-hartze punten aipamena, garai desberdinetan gorabeherak** dituelarik parte-hartzeak, gaur eguneko atzeraldi espezifiko batetik bereiziz. Parte-hartzearen espektatibak, bere aldetik, ez dira negatiboak eta nagusiki uste da taldearekin jarraituko dela. Aspektu hau **inplikatzeko dirauten arrazoi eta zergatien sendotasunarekin** loturik dago, honen ideia nagusia parte hartuko ez balitz egoera okerragoa litzatekeen ustearen gainean mantentzen delarik.

4. PARTE HARTZEKO ARRAZOIEN KOADROA





Parte-hartzerik ezaren inguruan, beronen existentzia identifikatzen eta aitortzen da, eta ez inplikatzeko motibazio ugari ulertzen dira, autokritika konplexua burutuz.

Halere, ulertu ezin ez den puntuan gertatzen da deskonexioa, gustuko ez denaren aurrean geldirik geratzean. Parte-hartzearen logikan ondo ez dagoen hura aldatzeko prest izatea besterik ez dagoen bitartean, parterik hartzen ez duten profilek, itxuraz, aurre ez egitea lehenesten dute.

5. PARTE HARTZERIK EZAREN ULERTZEN ETA ULERTZEN EZ DIREN ARRAZOIAK

ULERTZEN DIREN ARRAZOIAK

- Itxiegia, ez naute ulertzen
- Nire iritzia ez du axola
- Ez nau motibatzen
- Eta non egingo dut?
- Esfortzu handia emaitza txikiarentzat
- Ez dira ni bezalakoak
- Ez dute jende berririk nahi
- Behin egin nuen eta erreta bukatu nuen
- Gazteek gutxiago erabakitzen dute

ULERTZEN EZ DIREN ARRAZOIAK

- Ez zait interesatzen
- Ez du ezertarako balio
- Guztiak berdinak dira
- Beste norbaitek egin dezala
- Hobe da horrela uztea, badaezpada
- Ez doa nirekin
- Ordaintzen ez badute, ez
- Kexatu bai, mugitu ez

Edozelan ere, I2013 honetako ondorioek atariko izaera dute, deskriptiboa, ondorengo ikerketekin alderatu beharrekoak direlarik, egiaztatzeko gaitasunaren bidez analisi sakonago bat posible egingo duten ikerlanekin.

Hori bai, **erreferentzia puntu** interesgarriak dira, balio erantsi batekin gainera, **pertsona gazteek bere osotasunean ikertu eta analizatutako ikerketa** izatearena.

a. **Gomendioak gazte erakunde eta taldeei**

- › Talde guztiek, lantzen duten eremua edozein izanda ere, helburu bat edo batzuk dituzte. Taldearen existentzia bera azaltzen duten arrazoiak dira, eta parte-hartzaileak inplikatzera bultzatzen dituztenak. Azaldu den moduan, gaztetasuna eta parte-hartzea etengabe aldatzen ari diren elementuak dira, eta pentsa daiteke dinamika horrek nolabaiteko eragina izan dezakeela parte-hartze espazioetan. Jatorrizko nortasunari ukorik egin gabe, gomendagarria da **hausnarketak eta ekarpenak egiteko aldiak irekitzea**, taldeen **helburuak inplikatzaren diren interes edota beharrianetara egokitzeko** asmoarekin.
- › Horrela, kolektiboetan **epe laburreko, ertaineko eta luzeko** helburuak daude. Berauek parte-hartzaile guztien artean definitzeak, azaltzeak eta onartzeak taldearen nortasuna eta lan komuna errazten ditu.
- › Zentzu honetan, garrantzitsua da kolektiboaren marko orokorra behin eguneratuta, **bilatzen dena egiten denarekin bat etortzea**. Kirol arloan diharduen erakunde



bat, adibidez, kirola egiten ahalegindu beharko litzateke; eta era berean, ingurugiro arloan, soziopolitikan edo beste edozein eremutan jarduten duenak, bere existentzia arrazoitzen duen horretan jarduteko ahalegin guztia egin beharko luke. Gure taldeak agiriaren artean ematen badu denbora, sortua izan den jarduera horretan aritu baino, badirudi ez dela gai izan kolektiboak duen gaitasuna sortzen den jarduera-bolumenari egokitzeko. Hobe da jarduera gehiago burutzeari uko egitea, jarduera hobea lortzeko.

- › Aldi berean, beharrezkoa da esperientzia parte-hartzaileari **zentzu praktiko bat** ematea, helburu teoriko handiek, ulertuek edota inertziak parte-hartzearen egikaritza praktikoa estal ez dezaten. Horretarako, komeni da aldizkako ebaluaketak burutzea, eraginkorra izaten ari garen edo ez jakiteko.
- › Zentzu honetan, erabilitako **metodoei** arreta berezia eskaini behar zaie. Egokiak al dira? Aurrekoetan emaitza onak eman al dituzte? Posible den heinean, elkartegintzako tradizionalismoan erortzea ekiditu behar da, gauzak ez aldatzeko edo ez hobetzeko argudio nagusia *gauzak horrelakoak direla* duen tradizionalismoa.
- › Askotan hitz egiten da kideetarikoz batzuk “erretzen” direla, eta askotan horren arrazoiak ulertzen dira. Hori aldatzeko premia dago, eta horretarako ezinbestekoa da **erritmoak eta denborak zaintzea**. Ez badira bateragarriak bizitza pertsonalarekin, prestakuntzarekin edo lanarekin, ez dira zuzenak. Inbasiboak ez izatea da helburua, parte-hartzearen edo bestelako jarduera kolektiboen, eta norbanakoari dagokionaren artean aukeratu behar ez izateko.
- › Horrekin batera, komeni da **espazioak ez bikoitzea eta beharrezkoak ez diren espazio berriak ez sortzea**. Litekeena da beren sorrera eragin duen arazo hori ez konpontzea eta berezko oztopo bihurtzea.
- › Plano idealean, **kide bakoitzak bere onena emango duen espazioan egon beharko luke**. Batzutan, frustrazioak eta ezezkoak taldeen baitan ematen den funtzioen esleipen okerraren ondoren datoz. Parte-hartzaile bakoitza zertan izan daitekeen erabilgarriagoa galdetzea.
- › Noiz ospatu zen azken aldiz arrakastaren bat edo taldearen existentzia bera? **Jarduera ludikoentzako eta gizarteratzearentzako** espazioa lagatzeak, esanahi berriak ematen dizkio parte-hartzeari eta burutzen den lan zehatza hobetzea dakar. Gainera, parte-hartzearen praktikan bertan beharrezkoa da laguntasunen garapenerako espazio atsegin eta egokiak bultzatzea.
- › Parte hartzen dutenen ezagunak eta lagunak hurbiltzea posible egingo duten **espazioak irekitzea** aproposa dela ulertzen da. Modu honetan pertsona berriak inplikatzeko zubi bihurtzen dira.
- › Gazte erakunde bat izatekotan, **pertsona gazteek erreferentziazko erantzukizunak izan behar dituzte**, gutxienez. Horrela funtzionatzen duten eta emaitza onak lortzen dituzten erakundeen adibide nahiko dago. **Belaunaldi erreleborik gabe erakundea desagertuko da azkenean**.
- › Agerikoa badirudi ere, funtsezkoa da **parte-hartzaile berriak zaintzea**. Ez zaizkie soilik erantzunak eman behar, zer eta nola egitea espero duten galdetu behar zaie. Praktikan egiten denak taldearen egitura islatzen du.

- › Parterik hartzen ez dutenei begira, komeni da **zuzentzen gatzaien profilak identifikatzea**, kide berriak lortzeko asmoarekin. Interes gehien izan dezaketenak zehaztuz, helburu honetan emaitza hobeak lortuko ditugu.
- › Ez dugu ahaztu behar **gazteentzat denboraren erabilerarako une zaila dela**. Egoera honetaz kexatzeak ez du arazoa hobetuko. Gomendagarria da **aurrea hartzea** eta inplikazio partzialentzako, noizbehinkakoentzako, baita internet bidezkoentzako ere, **aukerak sortzea**. Haiek ez egotea baino hobe izango da edozein kasutan.
- › Erakundean emakumeak erabakitze-guneetan ez badaude, maskulinitateko da. Ez bada aniztasun afektibo-sexuala zaintzen, heteronormatibizatuko da. Euskararentzat eta hizkuntza aniztasunarentzat lekurik ez badago, elebakarra izango da. Azken finean, **gertatzea nahi den hori zaindu behar da**.

b. Gomendioak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarentzat

- › EGK-ren kasuan, bere burua ezagutzera emateko, parte-hartzen duten zein ez duten gazteei zuzendutako **komunikazio kanpainekin** jarraitu behar du. EGK-ren berri ez izatea da bere oztopo nagusia.
- › **Ezagutzera emateko eta erabilgarritzat hartua izan dadin**, zerbitzu zehatzen katalogoa hedatzea komeni da, material eta espazioen mailegu eta erabilera, aholkularitza, dinamizazioa (*know how*), etab.
- › Egungo gazteen parte-hartzea ematen ari den **forma eta denboretara** egokitu behar da. Horretarako, beharrezkoa da hurbiltzeko moduak eta talde-errealitate berrien (formalak, erdi-formalak eta ez-formalak) sarrera erraztea, murriztu gabe.
- › Gomendagarria da **gai sozioekonomikoei** arreta jartzea, gazteen arazo eta interes nagusiei hurbilduz, gazteen diskurtsoari egokitzeko helburuarekin.
- › Aurrekoarekin lotuta, azken finean, **Kontseiluak euskal gazteriaren antza** izan dezala etengabe bilatzea da kontua, gazteek euren eskubideak defendatzen dituen aliatua izango dutelarik.
- › Posible den heinean, **egun jorratu ezin daitezkeen gai eta lerroak** landu beharko lituzke. Horretarako, landu beharreko gaiak eta nola landu erabakitzeko aurretiazko ebaluaketa bat burutzea egokia litzateke.
- › Erakunde kideekin eta erakunde kide posibleekin **hartu eman aktiboa** izaten ahalegindu behar da EGK, honen lana positiboki baloratzen badute ere, praktikan parte hartzen ez dutelako.
- › **Ikerlanak**, jardunaldien ondorioak, dokumentazio lanak eta **gazteen diskurtso propioa zabaltzeak**, inguru sozial eta komunikatiboan eman ohi den gazteen inguruko kontakizun gutxiesgarria eztabaidan jartzen lagundu dezake.
- › EGK **gaztaro osteko aldiari buruzko eztabaida** burutzeko espazioa izan daiteke, denboraldi gaztearen amaiera moduko errealitate zehaztugabearen gaineko orientazioak emateko helburuarekin.

- › Administrazioarekiko **bozgorailu eta zubi-lan funtzioa** oso positiboki baloratzen dute parte hartzen duten gazteek, mantendu eta indartu beharreko ezaugarri propioa delarik. Espazio kritikoa izan behar da, beraz.
- › **Planteamendu orokor, estrategikoa** jarraitu behar du, azken lauzpabost urteotan sarturik egon den ziurgabetasuna behin gaindituta.

c. **Administrazioentzako gomendioak**

- › Erakundeengandik aldentzea ematen ari den testuinguru batean, gazteak berreskuratzeko beharrezkoak dira **problematika zehatzei** irtenbideak aurkitzea, hauen artean bizi baldintzak nabarmentzen direlarik. Gazteek hautematen dute denborak aurrera egin ahala euren espektatibak hondatzen direla, eta administrazioak lagundu baino eskatu egiten diela.
- › Administrazioen eta gazte erakunde zein taldeen arteko komunikazioa hobetzeko saiakera egin beharko litzateke. Talde askok hautematen dute eremu instituzionaletik **ez dituztela ezagutzen**.
- › Zentzu honetan, administrazioa ahalegindu beharko litzateke **errelebo politiko edo administratibo** bat ematen denean **lortutako jakintza gal ez dadin**, horrela gazte elkartegintza ehunarekin berriz ere zerotik hasia ekidituz.



- › Gazte erakundeak **erregistratzeko moduak** erraztu litezke, parte-hartze era berriak jasotzen ahaleginduz egungo gazteen errealitatera hurbiltzeko lehenengo keinu moduan. **EGK** zeregin honetan elkarlanean aritzeko **erakunde bat** izan liteke.
- › Gomendagarria da **gazte elkartegintzako ehuna mantentzeko partidak ez murriztea**, eta elkartegintzako errealitate berriek sarbidea izan dezaten mekanismo berriak ezartzea.
- › Administrazioak bere ekarpena egin dezake, **gazteen inguruko kontakizun soziala hain kaltegarria izan ez dadin**, irudi errealista hedatuz eta pertsona gazte batek esfortzu berarekin emaitza kaskarragoa lortzea eragotziz.
- › Azkenik, gazteria eta parte-hartzearen fenomenoak ulertzera bideratutako ikerketa lerroak **babesten** jarraitu beharko luke. Gazteak gizartearen isla izanik, gaztetasunaren ezagutza zientifikorik gabe zaila da plano sozialean jada gertatzen dena eta gertatuko dena ulertzea.